

SANTUTEGIKO IZEN OHIKOENAK

AURKEZPENA

Euskal izendegien historiaz

Euskaraz santuen izendegia finkatzeko lana ez da oraingoa. Sabino Aranak eta Luis Elizaldek ere, duela ehun urte, argi ikusi zuten euskarak onomastika arlo honetan erabakizun zuen arazoa, ez baitzen gisa, hain nortasun nabarmeneko hizkuntza, pertsona-izenei dagokienez, inguruko erdaren morroi egotea. Garai hartan, ordea, ez ziren oraindik agertu gaur ezagutzen ditugun dokumentu zahar eta lekukotasun asko, lehenagoko euskal izenen berri ematen digutenak. Horrexegatik, biltzeari ez baina asmatzeari ekin behar zioten orduko aitzindariak. Haiek asmatutako izenek (*Josu, Jon, Miren, Joseba, Koldo...*) arrakasta handia izan dute pertsona-izen gisa eta, alde horretatik, gure Herriak egiaz sentitzen zuen premia betetzera zetozen, onomastika-beregaintasuna lortzeko. Gaur egun zinez esan daiteke Arana-Elizaldek asmatu eta proposaturiko izen horietako asko gure gizartean aski errotuak eta finkatuak direla, eta, beraz, pertsonen euskal izentzat onartu behar dira.

Halere, pertsona-izen horiek ez dute inoiz lortu santuen izenak baztertzea, eta *Jesukristo, Ama Birjina* eta haren senarra, kasu, ez dira euskaraz *Josu, Miren* eta *Joseba, Jesus, Maria* eta *Josef* baizik. Santutegiko arlo hau, beraz, oraindik erabakitzeke zegoen eta Euskaltzaindiak, hutsune hori bete nahi izan du.

Santutegia zer den

Santuen izendegia Testamentu Zaharreko eta Berriko, eta kristaubidean nabarmenduriko pertsona dohatsuen izenez osatua da. Izen horiek, jatorriz, judu, greko, erromatar eta —kristautasuna hedatu ahala— germaniar, eslaviar eta Europako gainerako herrietako izen bereziekin aberastu ziren. Izen horiek, ordea, jende ezberdinen ahoetan erabiltzearen bortxaz, tokian tokiko aldakuntzak izan dituzte, haien hizkuntzen ezaugarri eta aldaketa fonetiko berezien arabera. Horrela, latinezko *Petrus*-etik *Piero/Pietro, Pierre, Pedro, Pere, Peter, Piotr, Petre* eta *Butros* gisako aldakiak sortu dira italieraz, frantsesez, gaztelaniaz, katalanez, alemanez, errusieraz, georgieraz eta koptoeraz.

Santuen euskal izenak

Euskaraz ere, izen horiek euskaldunon fonetika bereziaren iragazkitik pasa eta aldatuak dira. Eskuarki, zenbat eta santua zaharragoa eta gure Herriko debozioan errotuagoa egon, are aldatuago eta euskal fonetikara moldatuago agertzen zaigu haren izena ere. Arrazoi beragatik, Aro Berriko santuen izenekin eta gure artara duela gutxi heldurikoeekin aldaketa txikiak gertatzen dira.

Euskal fonetikara egokituriko eta euskaldunen artean luzaro erabilitako santu-izen horiek maiz agertzen dira Euskal Herriko atsoititz, dokumentu zahar eta erlijio liburuetan. Alde horretatik Nafarroako artxiboak bereziki aberatsak izan zaizkigu Erdi Aroko euskal izenak nolakoak ziren jakiteko. Trentoko Kontziliotik aurrera (1545), Elizak Estatuen hizkuntza ofizialak eredu hartu zituen bere san-

tutegirako, eta harrezkero lehenagoko herri-izen ezofizialak baztertzuz joan ziren. Ofizialtasunik ezak aldean gizarte-bazterketa ohi dakar, eta jendearen usadioan ordurarteko izen normal eta ohikoak pixkanaka bigarren mailako gaitzizentzat hartu, jakite urriko eta maila apaleko pertsonen ezaugarri, eta lotsarren, euskarazko izen jator zaharren orde, erdarazko berriak nagusitzen hasi ziren. Hori dela eta, eliz artxibo eta erregistroetan, azken mendeotan ia beti erdal formazko izen hutsak agertzen zaizkigu, frantsesez zein gaztelaniaz, administrazioaren eta notaritza-paperetan bezalaxe.

Euskara hizkuntza ofiziala ez izateak berekin lekukotasun idatzi gutxi ekarri du. Hori dela eta, dokumentuetan maiz erdal izenek (latinezkoek edo erdarazkoek) euskarazkoak ezkututzen dizkigutela frogatu da eta horrek, noski, anitz kasutan beste horrenbeste gerta zitekeela susmarzaten digu, Koldo Mitxelena berak ongi azpimarratu zuenez. Hortaz, dokumentu idatziez gain, leku- eta etxe-izenetan agertzen diren santu-izenen doakienez, tokian tokiko tradizioa ere kontutan hartu behar izan dugu, eta sarritan ustegabeko altxor ezkutatuak aurkitu ere bai.

Aspaldiko urteotan, ordea, euskara hizkuntza ofiziala da eta gero eta eremu zabalagoak besarkatzen ditu. Idazleek eta, oro har, erabiltzaileek normaltze-bidean aurkitzen duten oztopo nagusiengatik bat terminologian eredurik ez izatea ohi da, eta santuen izenak, erlijio liburuetarako ez eze, bibliotzulpen, histori aipamen, kale-izen edo herri jaietarako ere behar-beharrezkoak izaten dira. Eta maiz, nora jo ez dakitela, idazleek erdal izenak hartu behar izan dituzte, Iparraldean frantsesezkoak eta Hegoaldean espainierazkoak, gure hizkuntzaren duintasunaren eta batasunaren kaltean.

Euskaltzaindiak, Euskal Herriaren zerbitzurako erakundea den aldetik, sentiberatasun berezia erakutsi du beti euskaldunen hizkuntz premien aurrean. Hori dela eta, euskal pertsona-izenak lege barruan jartzea errazteko, aspaldian argitaratu zuen bere euskal izendegia, J. M. Satrustegiren lanari esker moldatua. Bide berean, oraingoan, arazo honi irtenbide egokiagoa emateko eta gizartetik datozkion eskariei erantzun nahirik, Euskaltzaindiak gure artean tradizio handia duten santu-izen batzuk hautatu eta gaurko euskal ortografiara egokiturik, lehen zerrenda hau eskaintzen du, ondoan beste batzuekin osatzeko asmoarekin.

Jatorrizko santuaren arabera, izen batzuk gizonezkoenak dira (*Adam, Alberto, Artur, Lukas, Tomas, Xabier...*) eta beste batzuk, aldez, emakumezkoenak (*Ana, Arrosa, Barbara, Eva, Margarita, Susana, Teresa...*). Zenbaitzuk, ordea, historian zehar genero-mozioa garatu dute eta halaxe heldu zaizkigu tradizioz: *Agustin / Agustina, Aurelio / Aurelia, Henrike / Henriketa, Joanes / Joana, Mikel / Mikela, Paulo / Paula, Valentin / Valentina, Zezilia / Zezilio*, adibidez. Azken horiek, jakina, egokiak dira genero biak izendatzeko, eta ontzat hartuko ditu Euskaltzaindiak hurrengoan argitaratuko duen pertsona-izenen zerrendan. Halere, oraingo hau santuen arabera ematen dugu. Hori dela eta, *Joanes* (Bataiatzailearen ondoan *Joana* ere azaltzen da (*Joana Arc*-ekoagatik), baina hurrengorako uzten ditugu *Zezilio, Inozentzia* edo *Mikela* modukoak, genero horretako santurik ez delako.

Era berean, zerrenda honetako izenez gainera, badira beste batzuk, lokalak, hipokoristiko, afektibo edo txikikariak (*Beñat, Betti, Patxi, Ganix, Manex, Pello, Gaxuxa, Dunixi, Antoni...*) eta Arana-Elizaldeek sortuak (*Iñaki, Kepa, Koldo, Jaione, Miren, Ikerne...*). Horiek ere, iturburuko santuak izendatzeko egokiak ez diren arren, tradizio handia duten batzuk salbu *Bladi* eta *Murtuts* Iparraldean, esaterako, aspaldiko urteotan finkaturik dauden heinean, ontzat ematekoak dira pertsona-izen gisa erabiltzeko. Azkenik, *Ama Birjinaren* adbokazioko toponimo ezagunekin batera (*Begoña, Arantzazu, Leire, Ainhoa...*), azken urteotan, santuenak izan ez arren, hedatu direnak ditugu (*Ainara, Hodei, Ibai, Haritz, Itsaso...*), eta horrelakoak ere hurrengo zerrendan bilduko ditu Euskaltzaindiak, ponte-izen gisa.

Hau, beraz, geure Herriari eskaintzen diogun lehen emaitza besterik ez da, pausoz pauso osatzekoa.

IRIZPIDEAK

Santuen euskal izenak finkatzeko orduan, euskararen eta euskaldunen hizkuntz duintasuna gidari hartuta, beharrezkotzat jotzen da gure Herriaren tradizio zahar eta propioa berreskuratzea, izen horiek, ahal den neurrian bederen, gaurko gizartearen txertatu edo berpizteko. Ongi gogoan dugu ofizialtasunik ezak luzaro eta sistematikoki baztertu dituela euskal pertsona-izen propioak, eta horregatik, arlo honetako izenak aukeratzeko irizpideak beti ezin izan daitezke ohiko euskal hitz batuak erabakitzeko erabili diren berberak, hitz berezi hauek nola heldu zaizkigun eta nola dokumentatzen diren kontutan izanik. Bestalde, une honetan batasunaren bila gabiltzala, begien bistan dago frantsesaren eta espai-

nicraren ofizialtasun esklusiboak nolako amildegia ezarri duen gure artean (*Pedro / Pierre*), behialako *Petri* batzailearen kaltean. Beraz, oraingo bitasun-egoeratik irten nahirik, santuen euskal izen ereduak hautatu eta erabakitzeko, ondoko irizpideok hobesten dira:

1. Santuen izenek gaur egunean hizkuntza mintzatuan (*Eztebe, Maria, Josef*), gure literatura klasikoan (*Jakue, Petri, Paulo*), deituretan (*Martinena, Petrarena, Mikeltorena*), antroponimian (*Joañes, Aingeru, Gaitan*) hagiotoponimian (*S. Jurgi, Santi Mami*) eta oikonimoetan (*Mikelarena, Lukasena, Teresategi, Mamikoete...*) utzi duten lekukotasuna. Zenbat eta euskal forma bat maizago agertu, areago hartu behar da kontutan.
2. Formari dagokionez, erarik hedatuena, tradizio zaharrena eta amankomunena dutenak hobetsiko dira, ezagutzeko erraztasun eta itxuraren duintasun-arrazoik ere kontutan harturik.
3. Santu-izen hautatuez landa aurkitzen diren bigarren mailako aldakiak (txikigarriak, hipokoristikoa, forma lokal, gutxi erabili edo dialektalak) eredutzat hartzen ez badira ere, gaur-egungo pertsona-izen gisa erabil litezke, eta beste zerrenda batean argitaratuko dira; adibidez: *Adame, Aña, Beñat, Betiri, Bitor, Ganix, Manex, Pello, Txanton, Xipri...*
4. Ipar eta Hegoaldeko forma amankomunak, oinarritz, gainerako aldakiak baino onargarriagoak dira (*Abraham, Agustin, Ana, Arroza, Jakue, Jesus, Maria*).
5. Ipar-Hegoalde eremuak kontutan harturik, euskal izena alde biotako batean gorde eta beste eremuan erdarazkoa besterik ez dagoenean, euskarazkoa hobetsiko da (*Eztebe* eta ez *Esteban*), baldin izen hori erabat zaharkitua ez badago (*Kostobaro / Kristobare*, adibidez), euskal fonetikari propioki ez dagozkion aldaketek desitxuratu egia, herri-mintzairan edo dialektalismoengatik oso erosionatua eta beste eremuko euskaldunentzat ezagutzina ez bada (*Bixintxo, Inixio, Murtus, Fernando, Petiri, Urrufino*). Kasu hauetan, dialektalismo eta fonetismo gabeko forma eredu dokumentaturik egonez gero, horixe hartuko da eredutzat (*Bizente, Fernando, Fruktuoso, Magdalena, Ignazio, Petri, Rufino*).
6. Ipar eta Hegoaldean gaur egungo forma bakarrak erdarazkoak izan eta batera baldin badatzo horietan hobetsiko dira: *Felix* adibidez, eta ez *Eriz*.
7. Ipar eta Hegoa batera ez badatzo (*Guillermo / Guillaume, Jorge / Georges, Justo / Just, Lorenzo / Laurent*), horien ordez lehenagoko euskal forma ongi dokumentatuak azalduz gero, horiei emanen zaie lehentasuna, itxuraz ezagutzeko eta ulertzeko modukoak baldin badira: *Gilen, Jurgi, Justi, Laurendi*.
8. Ahal izan den neurrian, onomastikaren alor honetan ere batasuna dugu helburu. Halere, Ipar-Hegoetako tradizioak erabat batzerik izan ez denean eta ezinbestean, eredu bikoitza eskaini da (*Aines / Ines, Frantzisko / Frantses, Anton / Antonio...*) beste hizkuntza batzuetan ere inoiz gertatzen den bezala (frantsesez *Ferdinand / Fernand, Salvador / Sauveur*; alemanez *Georg / Jürgen, Ambros / Ambrosius, Ludwig / Ludowik, Johan / Johannes*; gaztelaniaz *Benedicto / Benito, Jacob / Jacobo / Santiago / Jaime*). Kontutan izan, kasu horietan aldakiak ez direla beti sinonimoak izaten. Esaterako, Testamentu Zaharreko *Jakob* patriarka eta Testamentu Berriko *Jakue* apostolua, hebreeraz izen bera izanik ere (*Ya'akob*), gaur izen banarekin ezagutzen ditugu.
9. Santuen izenak gaurko euskal idazkeraz transkribatuko dira, geografi izen bereziak euskaraz idazteko erabili diren irizpideei jarraituz:
 - 9.1. *c* grafemaren ordez *k* eta *z* erabiliko dira (*Karlos, Katalina, Klemente, Kosme, Oskar, Polikarpo, Zezilia, Zipriano...*).
 - 9.2. *b* eta *p* aurrean *n* jarriko da (*Anbrosio, Hunberto...*).
 - 9.3. *n*, *l* eta *r* ondoko *z* eta *s*, *tz* eta *ts* bilakatzen dira: *Antselmo, Frantzisko, Inozentzio, Prudentzio, Martzelo, Martzial, Nartziso, Ursula, Zeltso*.
 - 9.4. Geografi izenetan bezala (*Valentzia, Viena, Venezuela...*), *v* / *b* grafia dela eta, erreferenziaren azken buruan diren santuak eta pertsonaia historikoak aipatzeko *v* grafia egokiago dirudi (*David erregea, Adam eta Eva, Valentin eta Viktor santuak, Veronika, Genoveva Brabantekoa...*). Horrek ez du esan nahi, ordea, Euskal Herriko pertsonen ari garenean *b*-dun aldakiak ere ezin erabil daitezkeela: *Dabid Etxebarria, Bitoriano Gandiaga, Bitor Kapanaga, Balentin Enbeita...* Salbuespenez, *Bizente* eta *Salvatore* moduko izen tradizionalak uzten dira.

9.5. Gure artean tradizio berria duten izenetan hasierako *R*-a bere horretan utziko da (*Rebeka, Rikardo, Roberto, Ruben, Rufo*), tradiziozkoek aurrean bokal bat gorde arren: *Arrosa, Erramun, Erroman*.

10. Tradizio gutxi izenen kasuan, zantzaz egonez gero, frantses eta espainol ereduez gainera, Europako beste hizkuntza zabaletakoak ere, ingeles eta alemanezkoak batik bat, hartuko dira kontutan, bai morfologiari eta bai grafiari dagokionez, eta Ipar eta Hegoaldeko tradizio ezberdinen arteko auziak konpontzeko, nazioarteko forma hedatuena proposatuko dira: Adibidez, *Agapito / Agapet, Agueda / Agathe, Baltasar / Balthazar, Bernabé / Barnabé, Manuel / Emmanuel, Felipe / Philippe* edo *Jacinto / Hyacinthe* ereduaren artean, euskararako *Agapeto, Agata, Baltasar, Barnabe, Emanuel, Filipe* eta *Hiiazinto* hobetsiko dira (cf. ingelesez *Agapetus, Agatha, Balthasar, Barnabas, Emmanuel, Philip, Hyacinthus*; alemanez *Agapet, Agatha / Agathe, Balthasar, Emanuel, Philipp, Hyacinth*).

Nazioarteko ereduak alde batera edo bestera jotzeko argirik emango ez balute (*Andrés / André / Andrew / Andreas, Lucas / Luc / Luke, Bartolomé / Barthélemy / Bartholomew / Bartholomäus*), Euskal Herriko forma hedatuena emango zaio lehentasuna: *Andres, Lukas, Bartolome*.

11. Hebreerazko izenen bukaera dela eta, jatorriz *-ah* izanik, grezieraz nominatiboan *-as* gisa emana, tradizio handiko izenetan (*Tomas, Lukas, Matias...*) halaxe utziko dira euskaraz ere. Oraingo honetan gure artean duen tradizioagatik *Juda* izena hobetsi da.

12. Izen grekoek dagokienez, nominatiboaren *-os* bukaera euskaraz *-o* gisa ezarriko da: *Teodoro, Nartziso...*

-es amaitzen direnak, aldiz, ez dira aldatuko: *Nikomedes*.

13. Mailegu berrietan, latinetik hartzen diren izen propioak, nominatiboan *-us* bukatzen direnak, euskaraz *-o* bilakatzen dira: *Martzelo, Venantzio, Zelso...*

14. Jatorri germanikoa eta gure artean tradizio laburra duten izenetan (*Adolf, Albert, Alfred, Bernhard, Edmund, Eduard, Frederick, Humbert, Norbert, Raymond, Richard, Robert*) euskaraz *o*-dunak egokiagoa dirudi.

SANTUTEGIKO IZEN OHIKOENAK (*)

Euskaraz	Gaztelaniaz	Frantsesez
Adam	Adán	Adam
Adelaida	Adelaida	Adelaïde
Adelardo	Adelardo	Adalhard / Adéïard
Adolfo	Adolfo	Adolphe
Adrian	Adrián	Adrien
Agapeto	Agapito	Agapit
Agata	Águeda	Agathe
Agustin	Agustín	Augustin
Agustina	Agustina	Augustine
Aines / Ines	Ines	Agnès
Aingeru	Angel(a)	Angèle
Alberto	Alberto	Albert
Alexandra	Alejandra	Alexandra
Alexandro	Alejandro	Alexandre
Alfontso	Alfonso	Alphonse
Alizia	Alicia	Alice
Ana	Ana	Anne
Anakleto	Anacleto	Anaclet
Anastasia	Anastasia	Anastasie
Anastasio	Anastasio	Anastase
Anbro시오	Ambrosio	Ambroise

(*) Erabilgarriago izateko, hiru zerrenda eskaintzen dira: euskara-gaztelania-frantsesa, gaztelania-euskara eta frantsesa-euskara.

Andres	Andrés	André
Anizeto	Aniceto	Anicet
Antolin	Antolín	Antonin
Anton (abadca)	Anton /Antonio (abad)	Antoine
Antonia	Antonia	Antoinette
Antonio (Paduakoa)	Antonio (de Padua)	Antoine
Antselmo	Anselmo	Anselme
Apolinar	Apolinar	Apollinaire
Apolonia	Apolonia	Apollonie
Apolonio	Apolonio	Apollonius
Arnaut	Arnaldo	Arnault / Arnaud
Arrosa	Rosa	Rose
Artur	Arturo	Arthur
Atanasia	Atanasia	Athanasie
Atanasio	Atanasio	Athanase
Aurelia	Aurelia	Aurèlie
Aurelio	Aurelio	Aurèle
Balbina	Balbina	Balbine
Balduin	Balduino	Baudouin / Baudouin
Baltasar	Baltasar	Balthazar.
Barbara	Bárbara	Barbara
Barnabe	Bernabé	Barnabé
Bartolome	Bartolomé	Barthélemy
Bartolomea	Bartolomea	Bartholomé
Basilia	Basilia	Basilla
Basilio	Basilio	Basile
Benedikta	Benedicta	Benoîte
Benedikto (1)	Benedicto / Benito	Bénédicte / Benoîte
Bernart / Bernardo	Bernardo	Bernard
Bizenta	Vicenta	Vincente / Vincenette
Bizente (2)	Vicente	Vincent
Blas (3)	Blas	Blaise
Bonifazio	Bonifacio	Boniface
Brigita	Brígida	Brigitte
Bruno	Bruno	Bruno
Damaso	Dámaso	Damase
Damian	Damián	Damien
Daniel	Daniel	Daniel
Daria	Darfa	Darie
Dario	Darfo	Darius
David	David	David
Demetria	Demetria	Démétrie
Demetrio	Demetrio	Démétrius
Dionisia	Dionisia	Denise
Dionisio	Dionisio	Denis
Domingo	Domingo	Dominique
Dorotea	Dorotea	Dorothee
Doroteo	Doroteo	Dorothee
Edmundo	Edmundo	Edmond
Eduardo	Eduardo	Edouard
Elisabet	Isabel	Elisabeth
Elmu	Telmo	Elme
Eloi	Eloy	Éloi

(1) Gaztelaniaz eta frantsesez izen biok sinonimotzat ematen diren arren cuskararako *Benedikto* proposatzen da erre-gela eman eta Benediktarrak fundatu zituen santua izendatzeko.

(2) *Done Bikendi* izena ere erabil daiteke, tokian tokiko tradizioari so eginez.

(3) Iparraldean bizirik dagoen *Bladi* ere erabil daiteke eskualde mailan.

Emanuel	Manuel	Emmanuel
Emilia	Emilia	Emilie
Emilio	Emilio	Emile
Erramun	Ramón	Raymond
Erroman	Román	Romain
Estanislaio	Estanislao	Stanislás
Estefania	Estefanía	Etiennette, Stéphanie
Eufemia	Eufemia	Euphémie
Eulalia	Eulalia	Eulalie
Eulogio	Eulogio	Euloge
Eusebio	Eusebio	Eusèbe
Eustakio	Eustaquio	Eustache
Eva	Eva	Eve
Eztebe	Esteban	Étienne, Stéphane
Fabian	Fabián	Fabien
Fabiola	Fabiola	Fabienne
Fausta	Fausta	Fausta
Fausto	Fausto	Faust
Faustina	Faustina	Faustine
Faustino	Faustino	Faustin
Felisa	Felisa	Félicité
Felix	Félix	Félix
Felizia	Felicia	Félicie
Fermin	Fermín	Firmin
Fermina	Fermina	Firmina
Fernando	Fernando	Ferdinand
Filipa	Felipa	Philippa
Filipe	Felipe	Philippe
Florentzia	Florencia	Florence
Florentzio	Florencio	Florent
Florian	Florian	Florian
Frantziska	Francisca	Françoise, Francine
Frantzisko / Frantses (4)	Francisco	François
Frederiko	Federico	Frédéric
Fruktuosa	Fructuosa	Fructuose
Fruktuoso (5)	Fructuoso	Fructueux
Gabriel	Gabriel	Gabriel
Gabriela	Gabriela	Gabrielle
Gaitan	Cayetano	Gaétan
Garazi	Engracia	Engrace
Gaspar	Gaspar	Gaspard
Genoveva	Genoveva	Geneviève
German	Germán	Germain
Germana	Germana	Germaine
Gertrudis	Gertrudis	Gertrude
Gilen	Guillermo	Guillaume
Grazian	Graciano	Gratien
Gregorio	Gregorio	Grégoire
Gumersindo	Gumersindo	Gumesinde
Gustavo	Gustavo	Gustave
Helena	Elena	Hélène
Henrike	Enrique	Henri
Hiazinta	Jacinta	
Hiazinto	Jacinto	Hyacinthe

(4) Iparraldean ere Frantziskotarren izena zabaltzen ari dela eta jatorriz *Francesco* zela ikusirik, lehentasuna *Frantzisko* izenari ematen zaio, bestea ere iparralderako egokia izan arren.

(5) Iparraldeko *Muriuts* ere erabil daiteke eskualde mailan.

Hilaria	Hilaria	Hilaria
Hilario	Hilario	Hilaire
Hipolito	Hipólito	Hippolyte
Honorata	Honorata	Honorata / Honorine
Honorato	Honorato	Honorat / Honoré
Hugo	Hugo	Hugues
Hunberto	Humberto	Humbert
Ignazio	Ignacio	Ignace
Ildefontso	Ildefonso	Ildefonse
Inozentzio	Inocencio	Innocent
Irene	Irene	Irène
Isaak	Isaac	Isaac
Isidoro (Sibiliakoa)	Isidoro (de Sevilla)	Isidore (de Seville)
Isidro (Nekazaria)	Isidro (Labrador)	Isidore (le Laboureur)
Jakob	Jacob	Jacob
Jakue	Jaime, Santiago	Jacques
Jenara	Jenara	Januaria
Jenaro	Jenaro	Janvier
Jeronimo	Jerónimo	Jérôme
Jesus / Jesu Kristo	Jesús / Jesucristo	Jésus / Jésus Christ
Joakim	Joaquín	Joaachim
Joana	Juana	Jeanne, Jeannette
Joanes / Joan (6)	Juan	Jean
Josef	José	Joseph
Josefa	Josefa	Josèphe / Josèphine
Juda	Judas	Jude
Julia	Julia	Julie, Juliette
Julian	Julián	Julien
Juliana	Juliana	Julienne
Julio	Julio	Jules
Jurgi	Jorge	Georges
Justa	Justa	Justa
Justi	Justo	Just
Justina	Justina	Justine
Justino	Justino	Justin
Kalisto	Calisto	Calixte
Karlos	Carlos	Charles
Karlota	Carlota	Charlotte
Karmelo	Carmelo	Carmel
Kasilda	Casilda	Casilde
Kasimiro	Casimiro	Casimir
Katalina	Catalina	Catherine
Klara	Clara	Claire
Klaudio	Claudio	Claude
Klemente	Clemente	Clément
Klotilde	Clotilde	Clotilde
Kosme	Cosme	Côme
Kristina	Cristina	Christine
Kristobal	Cristóbal	Christophe
Laurendi	Lorenzo	Laurent
Lazaro	Lázaro	Lazare
Leandro	Leandro	Léandre
Leokadia	Leocadia	Léocadie
Leon	León	Léon
Luis	Luis	Louis

(6) Leizarragak Bataiatzaileari *Joanes* deritzo eta apostoluari *Joan*. Toponimian eta jaieguna izendatzeko *Donibane* izena hobesten da: *Donibane Garazi*, *Pasai Donibane*, *Donibane sua*, *Donibane jaia*, tokian tokiko crabilerak baztertu gabe.

Luisa	Luisa	Louise
Lukas	Lucas	Luc
Luzia	Lucía	Lucie
Luziano	Luciano	Lucien
Magdalena	Magdalena	Madeleine
Mamerto	Mamerto	Mamert
Mami	Mamés	Mammès
Margarita	Margarita	Marguerite
Maria	María	Marie
Marina	Marina	Marine
Marino	Marino	Marin
Marko	Marcos	Marc
Marta	Marta	Marthe
Martin, Martie	Martín	Martin
Martina	Martina	Martine
Martzelino	Marcelino	Marcellin
Martzelo	Marcelo	Marcel
Martzial	Marcial	Martial
Mateo	Mateo	Matthieu
Matias	Matías	Matthias
Matilde	Matilde	Mathilde
Maurizio	Mauricio	Maurice
Maxima	Máxima	Maxima
Maximo	Máximo	Maxime
Meliton	Melitón	Méliton
Meltxor	Melchor	Melchior
Mikel	Miguel	Michel
Modesto	Modesto	Modeste
Moises	Moisés	Moise
Monika	Mónica	Monique
Nartziso	Narciso	Narcisse
Nemesio	Nemesio	Nemèse
Nereo	Nereo	Nérée
Nikolas	Nicolás	Nicolas
Nikomedes	Nicomedes	Nicomède
Norberto	Norberto	Norbert
Olegario	Olegario	Ollégaire
Oskar	Oscar	Oscar
Oto	Odón	Odon
Pankrazio	Pancracio	Panrace
Paskoal	Pascual	Pascal
Patrizia	Patricia	Patricia
Patrizio	Patricio	Patrick / Patrice
Paula	Paula	Paule
Paulina	Paulina	Pauline
Paulino	Paulino	Paulin
Paulo	Pablo	Paul
Pelaio	Pelayo	Pélagé
Petra	Petra	Pierrette
Petri	Pedro	Pierre
Pia	Pía	Pia
Pio	Pío	Pic
Plazido	Plácido	Placide
Polikarpo	Policarpo	Polycarpe
Porfirio	Porfirio	Porphyre
Prudentzio	Prudencio	Prudent
Rafael	Rafael	Raphaël
Rafaela	Rafaela	Raphaëlle

Raimundo	Raimundo	Raymond
Raul	Raúl	Raoul
Rebeka	Rebeca	Rébecca
Remigio	Remigio	Rémi
Rikardo	Ricardo	Richard
Roberto	Roberto	Robert
Roke	Roque	Roch
Rufina	Rufina	Rufine
Rufino	Rufino	Rufin
Rufo	Rufo	Rufus
Sabina	Sabina	Sabine
Sabino	Sabino	Sabin
Salbatore	Salvador	Salvator (Sauveur)
Santuru	Santos	Toussaint
Saturdi	Saturnino	Saturnin
Saturnina	Saturnina	Satrunina
Sebastian	Sebastián	Sébastien
Segunda	Segunda	Seconde
Segundo	Segundo	Second
Sekundina	Secundina	Secondine
Sekundino	Secundino	Secondin
Serafin	Serafín	Séraphin
Serafina	Serafina	Seraphine
Sergio	Sergio	Serge
Severino	Severino	Séverin
Severo	Severo	Sever
Sigismundo	Sigismundo	Sigismonde
Silvestre	Silvestre	Sylvestre
Silvia	Silvia	Sylvie
Simon	Simón	Simon
Simona	Simona	Simone
Susana	Susana	Suzanne
Tadeo	Tadeo	Thaddée
Tekla	Tecla	Thècle
Telesforo	Telesforo	Télesphore
Tello	Tello	
Teodora	Teodora	Théodora
Teodoro	Teodoro	Théodore
Teofilo	Teófilo	Téophile
Teresa	Teresa	Thérèse
Tiburtzio	Tiburcio	Tiburce
Timoteo	Timoteo	Timothée
Tito	Tito	Tite
Tomas	Tomás	Thomas
Toribio	Toribio	Turibe
Torkuato	Torcuato	Torquat
Urbano	Urbano	Urbain
Ursula	Úrsula	Ursule
Valentin	Valentin	Valentin
Valentina	Valentina	Valentine
Venantzio	Venancio	Venant
Vcronika	Verónica	Véronique
Viktor	Victor	Victor
Viktoria	Victoria	Victoire
Virginia	Virginia	Virginie
Xabier	Javier	Xavier
Zakarias	Zacarias	Zacharie
Zeledon	Celedonio	Célédon

Zelestino
Zeltso
Zesar
Zezilia
Zipriano
Zirilo
Zosimo

Celestino
Celso
César
Cecilia
Cipriano
Cirilo
Zósimo

Célestin
Celse
César
Cécile
Cyprien
Cyrille
Zosimé

Gaztelaniaz

Adán
Adelaida
Adelardo
Adolfo
Adrián
Agapito
Águeda
Agustín
Agustina
Alberto
Alejandra
Alejandro
Alfonso
Alicia
Ambrosio
Ana
Anacleto
Anastasia
Anastasio
Andrés
Angel(a)
Aniceto
Anselmo
Antolín
Anton / Antonio (abad)
Antonia
Antonio (de Padua)
Apolinar
Apolonia
Apolonio
Arnaldo
Arturo
Atanasia
Atanasio
Aurelia
Aurelio
Balbina
Balduino
Baltasar
Bárbara
Bartolomé
Bartolomea
Basilia
Basilio
Benedicta

Euskaraz

Adam
Adelaida
Adelardo
Adolfo
Adrian
Agapeto
Agata
Agustin
Agustina
Alberto
Alexandra
Alexandro
Alfontso
Alizia
Ambrosio
Ana
Anakleto
Anastasia
Anastasio
Andres
Aingeru
Anizeto
Antselmo
Antolin
Anton (abadea)
Antonia
Antonio (Paduakoa)
Apolinar
Apolonia
Apolonio
Arnaut
Artur
Atanasia
Atanasio
Aurelia
Aurelio
Balbina
Balduin
Baltasar
Barbara
Bartolome
Bartolomea
Basilia
Basilio
Benedikta

Benedicto / Benito	Benedikto (7)
Bernabé	Barnabe
Bernardo	Bernart / Bernardo
Blas	Blas (8)
Bonifacio	Bonifazio
Brígida	Brigita
Bruno	Bruno
Calisto	Kalisto
Carlos	Karlos
Carlota	Karlota
Carmelo	Karmelo
Casilda	Kasilda
Casimiro	Kasimiro
Catalina	Katalina
Cayetano	Gaitan
Cecilia	Zezipia
Celedonio	Zeledon
Celestino	Zelestino
Celso	Zeltso
César	Zesar
Cipriano	Zipriano
Cirilo	Zirilo
Clara	Klara
Claudio	Klaudio
Clemente	Klemente
Clotilde	Klotilde
Cosme	Kosme
Cristina	Kristina
Cristóbal	Kristobal
Dámaso	Damaso
Damián	Damian
Daniel	Daniel
Darfa	Daria
Darío	Dario
David	David
Demetria	Demetria
Demetrio	Demetrio
Dionisia	Dionisia
Dionisio	Dionisio
Domingo	Domingo
Dorotea	Dorotea
Doroteo	Doroteo
Edmundo	Edmundo
Eduardo	Eduardo
Elena	Helena
Eloy	Eloi
Emilia	Emilia
Emilio	Emilio
Engracia	Garazi
Enrique	Henrike
Estanislao	Estanislao
Esteban	Eztebe
Estefanía	Estefania
Eufemia	Eufemia

(7) Gaztelaniaz eta frantsesez izen biok sinonimotzat ematen diren arren euskararako *Benedikto* proposatzen da erregela eman eta Benediktarrak fundatu zituen santua izendatzeko.

(8) Iparraldean bizirik dagoen *Bladi* ere erabil daiteke eskualde mailan.

Eulalia	Eulalia
Eulogio	Eulogio
Eusebio	Eusebio
Eustaquio	Eustakio
Eva	Eva
Fabián	Fabian
Fabiola	Fabiola
Fausta	Fausta
Faustina	Faustina
Faustino	Faustino
Fausto	Fausto
Federico	Frederiko
Felicia	Felizia
Felipa	Filipa
Felipe	Filipe
Felisa	Felisa
Félix	Felix
Fermín	Fermin
Fermina	Fermina
Fernando	Fernando
Florencia	Florentzia
Florencio	Florentzio
Floriano	Florian
Francisca	Frantziska
Francisco	Frantzisko / Frantses (9)
Fructuosa	Fruktuosa
Frutuoso	Fruktuoso (10)
Gabriel	Gabriel
Gabriela	Gabriela
Gaspar	Gaspar
Genoveva	Genoveva
Germán	German
Germana	Germana
Gertrudis	Gertrudis
Graciano	Grazian
Gregorio	Gregorio
Guillermo	Gilen
Gumersindo	Gumersindo
Gustavo	Gustavo
Hilaria	Hilaria
Hilario	Hilario
Hipólito	Hipolito
Honorata	Honorata
Honorato	Honorato
Hugo	Hugo
Humberto	Hunberto
Ignacio	Ignazio
Ildefonso	Ildefonso
Inés	Aines / Ines
Inocencio	Inozentzio
Irene	Irene
Isaac	Isaak
Isabel	Elisabet
Isidoro (de Sevilla)	Isidoro (Sibiliakoa)

(9) Iparraldean ere Frantziskotarren izena zabaltzen ari dela eta jatorriz *Francesco* zela ikusirik, lehentasuna Frantzisko izenari ematen zaio, bestea ere Iparralderako egokia izan arren.

(10) Iparraldeko *Murtus* ere erabil daiteke eskualde mailan.

Isidro (Labrador)	Isidro (Nekazaria)
Jacinta	Hiazinta
Jacinto	Hiazinto
Jacob	Jakob
Jaime, Santiago	Jakue
Javier	Xabier
Jenara	Jenara
Jenaro	Jenaro
Jerónimo	Jeronimo
Jesús / Jesucristo	Jesus / Jesu Kristo
Joaquín	Joakim
Jorge	Jurgi
José	Josef
Josefa	Josefa
Juan	Joanes / Joan (11)
Juana	Joana
Judas	Juda
Julia	Julia
Julián	Julian
Juliana	Juliana
Julio	Julio
Justa	Justa
Justina	Justina
Justino	Justino
Justo	Justi
Lázaro	Lazaro
Leandro	Leandro
Leocadia	Leokadia
León	Leon
Lorenzo	Laurendi
Lucas	Lukas
Lucía	Luzia
Luciano	Luziano
Luis	Luis
Luisa	Luisa
Magdalena	Magdalena
Mamerto	Mamerto
Mamés	Mami
Manuel	Emanuel
Marcelino	Martzelino
Marcelo	Martzelo
Marcial	Martzial
Marcos	Marko
Margarita	Margarita
María	Maria
Marina	Marina
Marino	Marino
Marta	Marta
Martín	Martin, Martic
Martina	Martina
Mateo	Mateo
Matías	Matias
Matilde	Matilde
Mauricio	Maurizio
Máxima	Maxima

(11) Leizarragak Bataiatzaileari *Joanes* deritzo eta apostoluari *Joan*. Toponimian eta jaieguna izendatzeko *Donibane* izena hobesten da: *Donibane Garazi, Pasai Donibane, Donibane sua, Donibane jaia*, tokian tokiko erabilcrak baztertu gabe.

Máximo	Maximo
Melchor	Meltxor
Melitón	Meliton
Miguel	Mikel
Modesto	Modesto
Moisés	Moises
Mónica	Monika
Narciso	Nartziso
Nemesio	Nemesio
Nereo	Nereo
Nicolás	Nikolas
Nicomedes	Nikomedes
Norberto	Norberto
Odón	Oto
Olegario	Olegario
Oscar	Oskar
Pablo	Paulo
Pancracio	Pankrazio
Pascual	Paskoal
Patricia	Patrizia
Patricio	Patrizio
Paula	Paula
Paulina	Paulina
Paulino	Paulino
Pedro	Petri
Pelayo	Pelaio
Petra	Petra
Pía	Pia
Pío	Pio
Plácido	Plazido
Policarpo	Polikarpo
Porfirio	Porfirio
Prudencio	Prudentzio
Rafael	Rafael
Rafaela	Rafaela
Raimundo	Raimundo
Ramón	Erramun
Raúl	Raul
Rebeca	Rebeka
Remigio	Remigio
Ricardo	Rikardo
Roberto	Roberto
Román	Erroman
Roque	Roke
Rosa	Arrosa
Rufina	Rufina
Rufino	Rufino
Rufo	Rufo
Sabina	Sabina
Sabino	Sabino
Salvador	Salbatore
Santos	Santuru
Saturnina	Saturnina
Saturnino	Saturdi
Sebastián	Sebastian
Secundina	Sekundina
Secundino	Sekundino
Segismundo	Sigismundo

Segunda	Segunda
Segundo	Segundo
Serafin	Serafin
Serafina	Serafina
Sergio	Sergio
Severino	Severino
Severo	Severo
Silvestre	Silvestre
Silvia	Silvia
Simón	Simon
Simona	Simona
Susana	Susana
Tadeo	Tadeo
Tecla	Tekla
Telesforo	Telesforo
Tello	Tello
Telmo	Elmu
Teodora	Teodora
Teodoro	Teodoro
Teófilo	Teofilo
Teresa	Teresa
Tiburcio	Tiburtzio
Timoteo	Timoteo
Tito	Tito
Tomás	Tomas
Torcuato	Torkuato
Toribio	Toribio
Urbano	Urbano
Úrsula	Urtsula
Valentin	Valentin
Valentina	Valentina
Venancio	Venantzio
Verónica	Veronika
Vicenta	Bizenta
Vicente	Bizente (12)
Victor	Viktor
Victoria	Viktoria
Virginia	Virginia
Zacarias	Zakarias
Zósimo	Zosimo

Frantsesa**Euskara**

Adalhard / Adélard	Adelardo
Adam	Adam
Adelaïde	Adelaida
Adolphe	Adolfo
Adrien	Adrian
Agapit	Agapeto
Agathe	Agata
Agnès	Aines / Ines
Albert	Alberto
Alexandra	Alexandra
Alexandre	Alexandro

(12) *Done Bikendi* izena ere erabil daiteke, tokian tokiko tradizioari so eginuz.

Alice	Alizia
Alphonse	Alfontso
Ambroise	Anbrosio
Anaclet	Anakleto
Anastase	Anastasio
Anastasia	Anastasia
André	Andres
Angèle	Aingeru
Anicet	Anizeto
Anne	Ana
Anselme	Antselmo
Antoine	Anton (abadea)
Antoine	Antonio (Paduakoa)
Antoinette	Antonia
Antonin	Antolin
Apollinaire	Apolinar
Apollonie	Apolonia
Apollonius	Apolonio
Arnaut / Arnaud	Arnaut
Arthur	Artur
Athanase	Atanasio
Athanasie	Atanasia
Augustin	Agustin
Augustine	Agustina
Aurèle	Aurelio
Aurèlie	Aurelia
Balbine	Balbina
Balthazar	Baltasar
Barbara	Barbara
Barnabé	Barnabe
Barthélemy	Bartolome
Bartholomé	Bartolomea
Basile	Basilio
Basilla	Basilia
Baudolin / Baudouin	Balduin
Bénédicté / Benoîte	Benedikto (13)
Benoîte	Benedikta
Bernard	Bernart / Bernardo
Blaise	Blas (14)
Boniface	Bonifazio
Brigitte	Brigita
Bruno	Bruno
Calixte	Kalisto
Carmel	Karmelo
Casilde	Kasilda
Casimir	Kasimiro
Catherine	Katalina
Cécile	Zezenia
Céledon	Zeledon
Célestin	Zelestino
Celse	Zeltso
César	Zesar
Charles	Karlos
Charlotte	Karlota

(13) Gaztelaniaz eta frantsesez izen biok sinonimotzat ematen diren arren euskararako *Benedikto* proposatzen da erregela eman eta Benediktarrak fundatu zituen santua izendatzeko.

(14) Iparraldean bizirik dagoen *Bladi* ere erabil daiteke eskualde mailan.

Christine	Kristina
Christophe	Kristobal
Claire	Klara
Claude	Klaudio
Clément	Klemente
Clotilde	Klotilde
Côme	Kosme
Cyprien	Zipriano
Cyrille	Zirilo
Damase	Damaso
Damien	Damian
Daniel	Daniel
Darie	Daria
Darius	Dario
David	David
Démétrie	Demetria
Démétrius	Demetrio
Denis	Dionisio
Denise	Dionisia
Dominique	Domingo
Dorothée	Dorotea
Dorothée	Doroteo
Edmond	Edmundo
Edouard	Eduardo
Elisabeth	Elisabet
Elme	Elmu
Éloi	Eloi
Emile	Emilio
Emilie	Emilia
Emmanuel	Emanuel
Engrace	Garazi
Étienne, Stéphane	Eztebe
Etiennette, Stéphanie	Estefania
Eulalie	Eulalia
Euloge	Eulogio
Euphémie	Eufemia
Eusèbe	Eusebio
Eustache	Eustakio
Eve	Eva
Fabien	Fabian
Fabienne	Fabiola
Faust	Fausto
Fausta	Fausta
Faustin	Faustino
Faustine	Faustina
Félicie	Felizia
Félicité	Felisa
Félix	Felix
Ferdinand	Fernando
Firmin	Fermin
Firmina	Fermina
Florence	Florentzia
Florent	Florentzio
Florian	Florian
François	Frantzisko / Frantses (15)

(15) Iparraldean ere Frantziskotarren izena zabaltzen ari dela eta jatorriz *Francesco* zela ikusirik, lehenetasuna *Frantzisko* izenari ematen zaio, bestea ere Iparralderako egokia izan arren.

Françoise, Francine	Frantziska
Frédéric	Frederiko
Fructueux	Fruktuoso (16)
Fructuose	Fruktuosa
Gabriel	Gabriel
Gabrielle	Gabriela
Gaétan	Gaitan
Gaspard	Gaspar
Geneviève	Genoveva
Georges	Jurgi
Germain	German
Germaine	Germana
Gertrude	Gertrudis
Gratien	Grazian
Grégoire	Gregorio
Guillaume	Gilen
Gumesinde	Gumersindo
Gustave	Gustavo
Hélène	Helena
Henri	Henrike
	Hiazinta
Hilaire	Hilario
Hilaria	Hilaria
Hippolyte	Hipolito
Honorat / Honoré	Honorato
Honorata / Honorine	Honorata
Hugues	Hugo
Humbert	Hunberto
Hyacinthe	Hiazinto
Ignace	Ignazio
Ildefonse	Ildefontso
Innocent	Inozentzio
Irène	Irene
Isaac	Isaak
Isidore (de Seville)	Isidoro (Sibiliakoa)
Isidore (le Laboureur)	Isidro (Nekazaria)
Jacob	Jakob
Jacques	Jakue
Januaria	Jenara
Janvier	Jenaro
Jean	Joanes / Joan (17)
Jeanne, Jeannette	Joana
Jérôme	Jeronimo
Jésus / Jésus Christ	Jesus / Jesu Kristo
Joachim	Joakim
Joseph	Josef
Josèphe, Joséphine	Josefa
Jude	Juda
Jules	Julio
Julie, Juliette	Julia
Julien	Julian
Julienne	Juliana
Just	Justi
Justa	Justa

(16) Iparraldeko *Murtus* ere erabil daiteke eskualde mailan.

(17) Leizarragak Bataiatzaileari *Joanes* deritzo eta apostoluari *Joan*. Toponimian eta jaieguna izendatzeko *Donibane* izena hobesten da: *Donibane Garazi*, *Pasai Donibane*, *Donibane sua*, *Donibane jaia*, tokian tokiko erabilerak baztertu gabe.

Justin	Justino
Justine	Justina
Laurent	Laurendi
Lazare	Lazaro
Léandre	Leandro
Léocadie	Leokadia
Léon	Leon
Louis	Luis
Louise	Luisa
Luc	Lukas
Lucie	Luzia
Lucien	Luziano
Madeleine	Magdalena
Mamert	Mamerto
Mammès	Mami
Marc	Marko
Marcel	Martzelo
Marcellin	Martzelino
Marguerite	Margarita
Marie	Maria
Marin	Marino
Marine	Marina
Marthe	Marta
Martial	Martzial
Martin	Martin, Martie
Martine	Martina
Mathilde	Matilde
Matthias	Matias
Matthieu	Mateo
Maurice	Maurizio
Maxima	Maxima
Maxime	Maximo
Melchior	Meltxor
Mélon	Meliton
Michel	Mikel
Modeste	Modesto
Moïse	Moises
Monique	Monika
Narcisse	Nartziso
Nemèse	Nemesio
Nérée	Nereo
Nicolas	Nikolas
Nicomède	Nikomedes
Norbert	Norberto
Odon	Oto
Ollégaire	Olegario
Oscar	Oskar
Panrace	Pankrazio
Pascal	Paskoal
Patricia	Patrizia
Patrick / Patrice	Patrizio
Paul	Paulo
Paule	Paula
Paulin	Paulino
Pauline	Paulina
Pélagé	Pelaio
Philippa	Filipa
Philippe	Filipe

Pia	Pia
Pie	Pio
Pierre	Petri
Pierrette	Petra
Placide	Plazido
Polycarpe	Polikarpo
Porphyre	Porfirio
Prudent	Prudentzio
Raoul	Raul
Raphaël	Rafael
Raphaëlle	Rafaela
Raymond	Erramun
Raymond	Raimundo
Rébecca	Rebeka
Rémi	Remigio
Richard	Rikardo
Robert	Roberto
Roch	Roke
Romain	Erroman
Rose	Arrosa
Rufin	Rufino
Rufine	Rufina
Rufus	Rufo
Sabin	Sabino
Sabine	Sabina
Salvator (Sauveur)	Salbatore
Satrunina	Saturnina
Saturnin	Saturdi
Sébastien	Sebastian
Second	Segundo
Seconde	Segunda
Secondin	Sekundino
Secondine	Sekundina
Séraphin	Serafin
Seraphine	Serafina
Serge	Sergio
Sever	Severo
Séverin	Severino
Sigismonde	Sigismundo
Simon	Simon
Simone	Simona
Stanislas	Estanislao
Suzanne	Susana
Sylvestre	Silvestre
Sylvie	Silvia
Télesphore	Telesforo
	Tello
Téophile	Teofilo
Thaddée	Tadeo
Thècle	Tekla
Théodora	Teodora
Théodore	Teodoro
Thérèse	Teresa
Thomas	Tomas
Tiburce	Tiburtzio
Timothée	Timoteo
Tite	Tito
Torquat	Torkuato

Toussaint	Santuru
Turibe	Toribio
Urbain	Urbano
Ursule	Urtsula
Valentin	Valentin
Valentine	Valentina
Venaüt	Venantzio
Véronique	Veronika
Victoire	Viktoria
Victor	Viktor
Vincent	Bizente (18)
Vincente / Vincenctte	Bizenta
Virginie	Virginia
Xavier	Xabier
Zacharie	Zakarias
Zosimé	Zosimo

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1996ko ekainaren 28an eta 1997ko uztarrilaren 31n onartua)

(18) *Done Bikendi* izena ere erabil daiteke, tokian tokiko tradizioari so eginuz.